




Eraldaketarako hiru ideia solte eta proposamen
zehatz bat

Talaios Kooperatiba

Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Internazionala (CC BY-SA 4.0)

- **Aitortu (*Attribution*):** Edukien iturriak aipatzera derrigortzen du.
- **PartekatuBerdin (*ShareAlike*):** Edukien jatorrizko lizentzia berdinarekin erabiltzea derrigortzen du.



Edukiak


Sarrera.....3

Ekonomia eraldatzen hasteko hiru ideia.....4

- 1.Indikadoreak eta neurri eskalak.....5
- 2.Katalizatzaile teknologikoa.....9
- 3.Ekintzailetasun ereduak eta ekintzailetasun komunitarioa.....10

OlatuKoop – bigarren kooperatiba olatua.....15

- Egitura.....16
- Esparrua.....17
- Markoa.....18
- Testuingurua.....19
- Balioak.....20
- Garapena.....21
- OlatuKoop oinarri irekiak.....22




Sarrera

Talaios kooperatibako kideak garapen ekonomikoari loturiko hainbat eztabaida, bilera, eta partehartze prozesuetan izan gara azken urte honetan, gaiak arlo ezberdinetan sortzen duen kezka eta interesaren erakusgarri.

Saio guzti hauetan gure ideiak azaldu eta zabaldu ditugu, kasu bakoitzean zegokion moduan. Orain berriz, azken hilabeteetan landu ditugun hiru ideia eta proposamen zehatz bat publiko egin nahi ditugu, interesa izan dezakeenak landu, garatu edo gurekin eztabaida ditzan.

Esan beharra dago ere Bakalhau irlako biztanleek eskaini dizkiguten ideia, laguntza eta eztabaidarako espazioak ezinbestekoak izan direla lan honen garapenean.

Sortu, eraldatu, elkarbanatu!




Ekonomia eraldatzen hasteko hiru ideia

Ekonomiaren egoera dela, eta batzuek krisiaren aitzakia erabiliz, normalitatearekin ikusten ditugu jendarteari proposatutako murrizketa neurriak. Horien aurrean erresistentzia estrategiaz gain ez da proposamen askorik egiten, baina han eta hemen badira martxan jartzen ari diren proposamen txikiak, eta bakoitzak bere ingurunean ere ikusten ditugu edo bururatzen zaizkigu zenbait irtenbide.



Testu honetan hiru ideia solte lantzen ditugu. Kutsu teknologiko handia badu ere, testua esparru teknologikotik kanpo ere aplikagarria da.




1. Indikadoreak eta neurri eskalak

Indikadoreak oso garrantzitsuak dira jendarte baten garapena eta batez ere berau osatzen duten pertsonen ongizatea neurtzeko. Hauetako batzuk BPGa kasu, ez dituzte ezaugarri horiek ondo neurtzen laguntzen. BPGak adibidez gizartearen aberastasunaren media kalkulatu du, izan daitezkeen ezberdintasunak kontutan hartu gabe.

Ondorioz, erabiltzen diren indikadoreek, eta batez ere hauekin egindako interpretazioek, ideologia gordetzen dute bere baitan. BPGa kontutan hartuz, gure ekonomia eskala makroan besteekin konparatzen dugu, baina jendartearen egituraketa, aberastasuna, ongizatea... kontutan hartu gabe. Bai, segur aski BPG altu bat duten herriek errazago izango dute faktore horietan ere goian egotea, baina ez du zertan.

Gizarte batek berdintasuna, zoriontasuna, jendarte garapena... kontutan hartu nahi baditu neurgailuak ere garrantzitsuak dira. Badira gauza horietako batzuk neurtzen laguntzeko beste era bateko indikadoreak:


- **GINI indizea:** Gini koefizientea aberastasunaren banaketa (edo metaketa) neurtzeko indize bat da.
- **HPI:** HPI indizeak bizitza kalitatea, zoriontasuna eta jasagarritasuna neurtzen du. Hiru parametroz dago osatua: bizitza itxaropena, jasotako ongizatea, aztarna ekologikoa.




- **GPI**: GPI Nazio Batuen Garapenarako Programak sortutako neurketa berezia da. Hiru parametroz osatuta dago: Bizitza luzea eta osasungarria, hezkuntza, bizitza maila egokia.

Neurri konkretuak ezartzeko indikadoreez gain **neurgailu eskala sinpleak** ere sor ditzakegu. Sailkapen sinple batekin nahikoa izan daiteke behintzat erabakiak nondik-nora hartu nahi diren zehazteko. Lehentasunak definitu beharko lirateke eta noski, behar ekonomikoen arabera sailkapen bat egin.

Arlo teknologikoa hartuz, eskualde baten beharretan softwareak ekonomian izan dezakeen eragina aztertuko bagenu adibidez, har daitezkeen neurrien sailkapen hau egin dezakegu: neurri integratzaileak, sozialak, lokalak eta komunalak.






Neurri integratzaileek, jendartearen teknologietara atzitzeko eskubide unibertsala ziurtatu behar dute. Interneteko azpiegitura publikoak, software librearen hedapena, alfabetatze teknologiko orokorra... Izan daitezke neurrietako batzuk.

Bigarren mailan, **neurri sozialak** daude. Arazo ekonomikoak dituzten herritarrak laguntzeko bereziki sortutako zerbitzuak bideratzeko tresna teknologikoak izan daitezke hauek. Elkartrukea sustatzeko sareak edota lana topatzen laguntzeko jendarte sareak esate baterako.

Ondoren, **neurri lokalak** datoz. Hau da, herri edo eskualde horietako ekonomia lokala sustatzeko tresna teknologikoak. Merkataritza lokala sustatzeko zerbitzuak eta tresnak edota enpresa lokalen arteko hartu-eman sareak, eraikitzen laguntzeko zerbitzuak edo finantziazio tresnak adibidez.

Amaitzeko, aurrera begira ere aukera gehiago sortzeko proiektuak ziurtatuko dituzten **neurri komunak**. Proiektuak gauzatzeko baliabide teknologikoak eta teknologia enpresa sareak sustatzeko laguntzak adibidez hemen kokatu beharko lirateke. Beti ere, sortuko diren egiturak izaera komunala badute.

Neurri eskala horietatik kanpo gelditzen dira **neurri pribatuak**. Hau da, interes pribatu hutsak sustatzeko laguntza bideak. Erakunde publiko baten laguntzen




artean, laguntza hauek mugatuak izan beharko lirateke beste mailak asetu bitartean. Hauek asetuta ere neurri komunalak ere neurri pribatu bezala uler daitezke. Bertako laguntzak maila pribatuan ere lagun dezakeelako, aberastasun komuna sortzen duten bitartean. Aberastasun hori ezagutza, baliabideak, ongizatea... izan daitezkeelarik. Hau da, gizarteari ekarriko dioten onura neurtuz egin beharko lirateke beti.

	2015	2025
Neurri komunalak	%10	%40
Neurri lokalak	%20	%30
Neurri sozialak	%30	%20
Neurri integratzaileak	%40	%10

Neurgailu eskala horiek indikadore egokien bidez parametrizatu eta neurtzeko bideak jarritz gero, etorkizunera begirako helburuak zehatz daitezke.


Jendare justuago bat lortzen hasteko, maila bajuagoko neurrien behar erreal txikitzea lortu beharko genuke. Lehen urteetan behe mailako neurrietan egindako inbertsioak etorkizunean behar hori txikiagoa izatea ekarriko luke eta beraz goi mailako neurrietan inbertsio gehiago egin ahal izateko aukera.



2. Katalizatzaile teknologikoa

Edozein ekonomia erabakietan teknologiaren erabilera sustatzea beharrezko bezala ikusten da. Hori horrela bada ere teknologia txertatzeko bideak ez dira jartzen. Zergatik ez da orduan enpresetan eta jendartean teknologia hori txertatzen lagunduko duen ekinbide bat sortzen? Katalizatzaile teknologiko honen egin beharretako batzuk hauek izan daitezke.

- **Ezagutzaren kudeaketa landu:** Ezagutzaren kudeaketa egoki baten bidez ekinbide ekonomikoak errazago mantendu eta garatu daitezke. Tresna teknologikoak baliatuz, enpresetako ezagutza digitalizatu, metatu eta transmititzeko bideak definitzen lagun daiteke.
- **Barne prozesuak eraginkorrago bihurtu:** Enpresa batzuetan aurrera eramaten diren prozesuetan, eraginkortasuna hobetzeko teknologia txertatzeko bideak azter daitezke.
- **Sareak eraikitzen lagundu:** Entitate ezberdinen artean ezagutza, negozioak eta elkarlana sustatzeko sareak, teknologia bidez sortzen lagundu.
- **Komertzializazio bide berriak landu:** Teknologia baliatuz salmenta bide berriak landu eta inplementatzeko aukera aztertu. Eskala handitu gabe irismena handitzeko gaitasun handia dute tresna hauek.




Katalizatzaile teknologiko baten ekinbide zehatzago batzuk aldiz hauek:

- **Ezagutza libreko baliabideak:** Dokumentu modeloak, modelo ekonomikoak, dokumentazio txantiloak...
- **Software libreko baliabideak:** Software librean oinarritutako produktuak sortu eta egokienak bildu.
- **Azpiegitura teknologikoak:** Enpresen behar teknologikoak asetzeko azpiegiturak.
- **Aholkularitza teknikoa:** Erabaki teknologikoak hartzen laguntzeko aholkularitza.
- **Bilgunea:** Elkarrekin harremanetan jartzen laguntzeko tresnak.

3. Ekintzailetasun ereduak eta ekintzailetasun komunitarioa

Jende askoren ustetan ekintzailetasuna sustatzea da krisitik ateratzeko bidea. Aspertzera ino zabaltzen saiatu diren mezuak, baditu ertz ugari. Hala ere, egia da enpresa berriak behar izango direla; aurreko egoerara bueltatuko gara uste duenak jai du.

Ekintzailetasuna sustatu nahi duen edozein erakundek erabakiak hartzeko garaian jarraitu beharreko modelo aztertu behar du. Sortu nahi den hori lortu ahal izateko ekosistema egoki bat behar izaten da eta hori sortzeko eskemak ere mila.



Eskema orokor bat baliatuz, ekintzailetasun ekosistema batek behar dituen faktore minimoak izan daitezkeenak ikusi eta ondoren zenbait ideia konkreturekin beteko ditugu.


Modelo orokorrean hiru bloke ikus daitezke. Lehena medioa (jendartea + merkatua), bideratzaileak (politikak + modelo), katalizatzaileak (laguntzak + espazioak).

Medioa

- **Jendartea:** Pertsonak hauen kultura eta baloreak, pertsonen arteko harremanak eta hauek bideratzeko sortutako erakundeek osatzen dute.
- **Merkatua:** Jendarteko pertsona, enpresa eta erakundeek trukea egiteko erabiltzen dituzten sistema, erakunde, prozedura, azpiegitura eta gizarte harremanek osatzen dute.

Bideratzaileak

- **Politikak:** Lortu nahi den ekintzailetasun eredua lortzeko politikak, batez ere orain arteko ereduak eraldatzera bideratuak.
- **Modeloak:** Lortu nahi den ekintzailetasun eredu berriak sortzeko modeloak, batez ere sortuko diren ekimen berriak bideratzeko.






Katalizatzaileak

- **Laguntzak:** Lortu nahi den ekintzailetasun eredu lortzeko laguntzak, batez ere orain arteko ereduetan eraldatzeko katalizatzaile.
- **Espazioak:** Lortu nahi den ekintzailetasun eredu berriak sortzeko espazioak, batez ere sortuko diren ekimen berriak sortzeko katalizatzaile.


Ekintzailetasun komunitarioa

Ekintzailetasun komunitarioak komunitatea du oinarri. Ekintzaile komunitarioa sustatu nahi duen ekintzailetasun eredu batek ondorioz, medio zehatz batetik abiatuz bideratzaile eta katalizatzaile egokien bidez komunitate ekonomiko berriak sortzea du helburu.



Medioari dagokionez, komunitate horiek jendartearekiko izan behar duten atxikimendua adierazteko, jendartearen merkatuaren gaintik jarri behar da. Ekimen berriek jendartearekiko atxikimendua beren biziraupenerako zein merkatu berriak topatzeko garrantzitsuak dira. Hala ere, merkatua ere errealitate den garaietan muzin egitea ezinezkoa da eta beraz ekimen berriek kontutan hartu beharreko gauza garrantzitsuenetako bat izan behar du.

Ekintzailetasun komunitarioaren barnean, ekintzailetasun kooperatiboa sar daiteke baldin eta



honek izaera komunitarioa badu, baina ez bere horretan kooperatiba forma juridikoa erabiltzeagatik.


Honek beraz, eztabaida berri bat irekitzen du ekintzailetasun komunitarioaren bidez sortu daitekeena kokatzeko garaian. Argi dago, Ekonomia Soziala deitutakoaren barnean koka daitekeela, baina alderantziz ez dago hain argi. Beharbada izendapen ezberdin bat beharrezkoa izan daiteke Ekonomia Komunitarioa, Ekonomia Komuna edota Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea...

Beste alorretan hauek izan daitezke kontutan hartzeko eredu edo adibide batzuk:

- Politikak: [Olatukoop sustapena](#)
- Modeloak: [Konpainia komunitarioak](#)
- Laguntzak: [Ekonomia eraldatzaileko haztegiak](#)
- Espazioak: [Hacker Space lokalizatuak](#)

Jendartea eta **Merkatua** alde batera utzi ditugu, ez baita testu honen izaera hauen egitura posiblearen azterketa, egin beharreko lana den arren. Horretaz gain, **Ingurunea** ere kanpoan utzi dugu, jakitun besteak barne hartuko lituzkeen zirkunferentzia berri bat litzakeela.

Bizi dugun egoera honetatik abiatuz etorkizun hobeak eta justuagoak eraikitzeko tresna propioak behar ditugu. Tresna hauek gainera eskala txikitik eskala handira begiratzuz eraikitzen baditugu, komunitate ekonomiko berriak sortuz eta jendartearen beharrei erantzunez, bidea egiteko oinarri sendoa izango dugu. Ideiak eta adibideak badira, baina orain hauek sustatu eta sendotuko dituen ingurunea behar da.




OlatuKoop – bigarren kooperatiba olatua

Euskal Herriak bigarren kooperatiba olatu bat behar du. Arrasaten, bizi duguna baino egoera ekonomiko okerrago batean euskal kooperatiba mugimendu garrantzitsuena sortu zen.


Eredu horrek bere indarra erakutsi du, baina baita gabezia handiak ere; horietako asko tamaina handiarekin zerikusia izan dutela argi dago, baina akatsak nabarmentzea baino, garrantzitsuagoa da bigarren kooperatiba olatu baten beharra dugula nabarmentzea.

Etorkizunak eraiki nahi baditugu ezinbestekoa izango da, ekonomia produktiboan eraldaketa bultzatzea.




Egitura

Kooperatiben arteko sarea: itun horrekin bat datozen kooperatiba (edo beste egitura posible batzuk) ezberdinen arteko sarea eraikitzea. Eskala handiak sortu baino, egitura banatuagoa duten sareak sortu proiektu handiagoei ekin, informazio estrategia bateratuak eraman eta baliabideak partekatu ahal izateko. Jabetza pribatu hertsia eskemetatik ihes egin beharko luke mugimendu honek eta komunak joko zelai natural moduan hartu.



Esparrua

Lurraldetasuna sare moduan: Olatu berri honek Arrasate utzi beharko du noski, baina Euskal Herria osoa ez da bere esparru bakarra, bai ordea esparru naturala. EH barneko sare trinkoa ehundu beharko litzateke, bertan baitago euskal meta-komunitatearen indarra. EHTik kanpo aldiz, ditugun sareak baliatu beharko lituzke, euskal erakundeak, harreman sozialak, kulturalak... Horiek guztiek ere olatu honen parte izan beharko luketeelarik.




Markoa

Marko ekonomiko eta politiko berri bat:


Mugimendu berriak lortzen eta eratzen duenaren autonomia ziurtatu eta eskuratutako eskubideak defendatuko dituen egitura politikoa eskuratzea garrantzitsua litzateke. Ekonomia berri horren kanpoan gelditu direnei sostengua emateko eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko.

Hori bai, egitura politiko berri bat izatera itxarroteak ez du zentzurik. Sortutako sare eta loturekin marko probisionalak eraiki beharko lirateke ekonomia berri honen sustatzaileen artean: udal sareak, mankomunitateak, diputazioak...




Testuingurua

Gizarteari lotutako itun bat: bakoitzak bere gizarte ardura korporatiboa baino, demokrazia ekonomikoa oinarri hartzen duen jendartearekiko itun bat beharko litzateke. Bere gertuko komunitateari atxikituta, baina inguratzen duen jendartearekiko harreman justu bat izatearen helburuarekin. Horretarako, mugimenduak bere inguruan elkar laguntza sareak eraikitzea ezinbestekoa litzateke.



Balioak

Ezagutzaren zabalpena eta sare kultura: Truke balioari, erabilpen balioa gailendu behar zaio. Ezagutzaren hedapena oinarri duen kultura bat sustatu beharko luke mugimendu honek. Alegia, hacker etikak eta sareen kulturak olatu honen bihotza izan beharko du. Domeinu publikoa eta honek ematen dituen askatasunak oinarri hartuta.




Garapena

Etengabe birsortzeko mekanismoak: Adimen eta estrategia zerbitzuak, tresna eta baldintza egokiak, etengabeko formazioa eta berrikuntzarako mekanismoak hasieratik kontutan hartu beharko lirateke mugimenduak hazi behar badu.

Oinarriak sendoak dira, urteetan gure inguruan kooperatiben inguruan sortutako esperientziak seguruenik irakaspen handiak eman ditu.

Kooperatiben indarra dute, langileek bere etorkizunaren jabe izateko tresna paregabeak direlako, fase honetan bizitzen ari garen eraso gelditzeko ezinbestekoak.

Egiturak berak forma asko har ditzake [kooperatiba txiki](#) batetik hasi eta Ikastolen federazioak hartutako [kooperatiba europarraren](#) egitura transnacionaleraino.



OlatuKoop oinarri irekiak

0. Komunitatea osatzen duten kideek erakundearen jabetza eta erabakitzeko ahalmena dute, demokrazia ekonomikoa eta bozka bat pertsonako irizpideari jarraiki.

1. Komunitatea osatzen duten kideek informaziora, ezagutzara, kudeaketa datuetara, baliabideetara eta hauen erabilerara atzipen osoa eta zuzena izango dute, gardentasun irizpideei jarraiki.

2. Beharrezko diren baliabide guztiak jarriz garapen eta elkartasun pertsonal zein komunitarioa sustatuko dira sare autonomia irizpideei jarraiki.

3. Komunitateak ondare komuna sustatzeko konpromezua eta bere komunitatearentzako, inguruko sarearentzako eta bere ekimenak gauzatzen dituen jendarterako ongizatea bilatzeko ardura hartzen du.